

GARAGARRILA ONDARTZA ILA

Bein garagarrilera ezkerro, eguzkia be gain-gainean su ta gar egoten da eta beroa galanta. Azken urteotan gainera benetako uda beroa garagarrilekoa izaten da. Egoaldeko aize errea eta goialdeak urdin. Eskoletan oporrak asita dagoz eta lantegirik geienetan bearra egiten bada be, ondartzak jentez gainezka agertzen dira gaur bai eta biar be bai.

Eguzki beroa agertu ezkerro, zer esanik be ez, azala baltzitzera, eguzkia jate-ra joan bearra izaten da. Bestelan zer esango ete dabe ba gure ingurukoak azal zuri ikusten bagaitue? Eguzkia artea be pagau egin bear ete dok ba?

Eta modara jarri bear orrek tamainuzko sufrimentuak ekarten ditu sarritan. Bein baino geiagotan ikusi ditugu karramarro egosiaren pare gorri amai-katxoren arpegi eta bizkarraldeak. Baina moda jaunak eskatzen dauan ezkerro, agindu orreek bete egin bear izaten dira, zer gero? Aurrerago bearbada saunak, negu partean gaineratu diran gantzak kentzeko barauak, ibilaldiak, edozer gauza eroateko prest egoteak... Ondartzatza «jainkotxoak» eskatzen dituan ildurak dira, eta bai pozik egin be. Eleizeak laurenik eskatuko baleu penitentzia modura, je! nor da gero berori antigualeko gauzak aitaturik sakrifizio eske gaurko egunetan asteko!

Eta oporraldia nasai eroateko traba guztiak kentzen dituenak be ugari. Etxean guraso zaarrik dabenak eurok asiloetara eroateak be bai. Bizitzeari

koipea atara bear jakola sasoia dan birtartean, eta aurrera. Umeekin ez da oraindikokoan orrenbestekorik egiten, naiz eta lekuren batzuetan aldi orretarako umeak derriorrez be kolonietara eta eroaten asiak izan. Emendik urte batzuetara nork jakin bide orretatik noraino elduko garean. Beno, asko aurrerago ez, neure ustez: zaarrak asilora, umeak kolonietara eta sasoikoak altarara, baltzitu eder batzuk artzera.

Eta geroago, familian ez dagoala ezeren begiramenik, gurasoei ez jakela dedu eta lotsarik, seme-alabak beti eurenakin urten bear izaten dabela... Iletea ugari. Baina arantza azia ereiten danean ezin ba garirik erne, eta gangarkeria zabaldu ezkerro... Azitik dator landerea.

Eleizeak orrelako laurenik eskatu baleusku, zer dinot lauren, laurenaren erdirik be... Joan zan garizuman aldizkari batera irakurle batek egindako eskutiza jatort gogora. Eleizea sarriegi zapaltzen ez eban orreetarikoa ei zan. Ileta batera joan, eta abadeak austerre eguna bijili eta barau eguna zala gogoratu ei eutsien. Zer jan edo zer jan barik itzi bear eben gogoratzeko nor ei zan ba abade ori. Alan inoan idatzen eban اندرزكوak. Udaldia be gerotxoago antxe etorriko zala eta agoa zaintzen asteko ordua urreratzen joiala edo esan baleutse, pentsau neban, bearbada ez zan alako protestarik agertuko. Udea modarako; eta Jainkoarentzak?

Sabin BARRUETABEÑA, cp.